

# estos no pararán



Basagoiti



López




Sanz



Ibarretxe




Botín (Santander)



Zubia (Confebask)



Ayesa (CEN)



González (BBVA)

# ...y tú?

# kapitalak ordain dezala!

# maiatzak 21 GREBA OROKORRA

esk

# Zergatik Greba Orokorra?

Greba orokorraren aurkako argudioak bi bloketan bildu ditzakegu:

Lehen blokean greba sustraitik kritikatzeko dituztenak leudeke, hau da, deialdia bera egiteko arrazoiak gaitzesten dituztenak. Besteak beste, Patxi Lopez-en geroko gobernuaren aurkako greba politiko bat omen delako, CCOO eta UGT baztertu dituelako, pairatzen ari garen krisia dela bide grebak ez duela zentsurik eta egun ugazaberia eta instituzioekin gizarte akordio bat lortu egin behar delako krisiaren ondorioak lan munduak ordaindu ez ditzan.

Bigarren blokean, greba orokorraren aurka egoskorak ez diren arrazoiak edo une honetan deialdia ez dela baliagarria edo zentzuzkoa ez dela jotzen dutenen arrazoiak. Baliagarritasun ezak zerikusirik du egin diren greba orokorren esperientziekin; greba hauek helburuzehatzak zitezkeen, batzuk defentsiboak izan ziren (eskubideen murrizketa zekartzaten eraldaketa legalak gerarazteko) besteak, aldiz, erasotzeko (1999ko maiatzaren 21eko greba orokorra, 35 orduko lanaldia eta Gizarte Soldata edo Oinarrizko Errentaren aldeko greba). Greba orokor hau ez dela egin behar defendatzen dutenek diote deialdia egin aurretik izaera sozial eta herritarra duen mobilizazio bateratu baten bideari ekin behar zitzaiola eta greba orokorra aurrerako utz zitekeela, kartutxo hau orain erre gabe.

1 - **Ez da Patxi Lopezen aurkako greba, baina grebak eduki politiko du eta nolabaiteko esparrurik finkatu nahi du Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Gobernu zentralarekin.**

Grebara deitzen duten sindikatuek garbi eta argi azaldu dute ez dela Patxi Lopezen aurkako greba bat, Eusko Jaurlaritzan emango den aldaketarekin denboran bat egiten duela

eta gobernu berria beste kolorekoa izan balitz ere grebarako deialdia berdin egingo zela. Normalena litzateke PSE\_EEtik sortu den akusazio honek bere horretan geratzea. Den dela, argudio honek eraginik balu ezin gaitu defentsiban jarri, honelako akusazio batek, neurri batean bada ere, hori lortu nahi baitu.

Maiatzaren 21eko greba orokorra eduki politiko garbia dauka, eta Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuari eta jakina Gobernu zentrolean erantzukizunik dutenei harreman-eremu bat zehaztu nahi die, krisiaren ondorioak leundu ditzaten.

Greba orokorraren erantzukiak eta aldarrikapenetan sartuko liratekeen edukiak (erantzukizun hauetako batzuk Gobernu zentralari soilik dagozkio eta beste batzuk ere bi gobernu autonomikoei).

#### a. Erantzukizunak

- Lan merkatuaren desarautze eta prekarizazioarengatik. Enpleguaren suntsiketan eragin handiago. Babes txikiago langabeziaren sariatzen.
- Adreiluan oinarrituriko hazkundearengatik. Beste herrietako inpaktua baino handiago. Zailtasun handiagoak ateratzeko.
- Kapitalaren eta sistemaren eliteen mesederako politika fiskalarengatik; politika honek langileriarengan errenta banaketa kaxkarra eragin du eta krisia areagotzen bada ongizate estatuaren sariak arriskuan jarriko ditu.
- Krisiaren aurkako neurrietan bankuak salbatzeari lehentasuna eman zaiolako eta ez ordea gure gizartearen sektore ahulenak salbatzeari, sektore hauetatik makalena ekorkinena da.

#### b. Aldarrikapenak

Aldarrikapen zehatzen zerrenda luzea izan daiteke, baina funtsezkoena, aldarrikapen guztien ideia nagusia helaraztea da, hau da, aurrezki kutxa edo banku bat bera ere erortzen utziko ez den bezala, ez dela onartuko pertsona bat bera ere bere bizi baldintzen okertzea sufritzea krisia dela bide, bai langabezia arazoengatik, bere etxebizitzatik botatzen dutelako edo den delakoagatik. Administrazio publikoek zein bitarteko jarri behar dituzte? Gobernu zentralak langabezia-sariak mugarik gabe bermatu behar ditu; Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak Oinarritzako Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria eta Gizarte Larrialditarako Laguntzen babesa zabaldu behar dute; inor ez dadila bere etxetik bidalia izan maileguak ez ordaintzeagatik, eta abar.

## 2. CCOO eta UGT kontutan hartu ez duen Greba Orokorrerako deialdiak jatorrizko bekatu bat du, honek deialdiaren garapenean eta emaitzan eragina izango du baina ez dio zilegitasunik kentzen ezta izatearen arrazoia.

ESK-k grebara deitu aurretik, bi sindikatu hauek kontutan ez hartzea kritikatu zuen. Baina onartu behar dugu falta hau kritikatzan dutenek arrazoia dutela, eta ez dator harira esatea CCOO eta UGTk ez luketela bat egingo greba orokorrarekin, hauen egitate sindikala itun soziala delako krisitik ateratzeko. Kontrako azalpen hau CCOO eta UGTi zegokien. Ezezko horren ostean, grebara deitzen dugun sei sindikatuok hobeto geundeke CCOO eta UGT sindikatuetak baseetara jotzeko gure argudioak emateko grebarekin bat egin zezaten. ESK-k uste du ez dela hanka sartzea estaltzeko arrazoirik eman behar. Estal dezala hanka sartu duenak, berak horrela nahi badu. Gure sindikatuak nahikoa du galerak minimizatzen; eta greba orokorrerako deialdiak jatorrizko bekatu badu ere, greba beharrezkoa dela azalduko dugu, eta krisiaren aurka joan den udazkenetik sindikatuak burutzen duen ildo nagusian kokatzen dela honelako deialdi bat.

## 3. Itun soziala ala greba orokorra?

Ez dugu denborarik galdu behar krisitik ateratzeko greba orokorrarekiko itun sozialaren abantailak eztabaidatzen. CCOO eta UGT agerian geratu dira ugazaberiak erradikalizatzerara behartu baititu. Ez dira gai izan azken zazpi urtetan sinatu duten interes gabeko Hitzarmen Kolektiborako Akordio Interkonfederala bera berritzeko, CEOE eta CEPYMEren exijentziak gehiegizkotzat jo dituztelako. Kapitalak krisiaren aurkako itun sozial posible baten aurrean klase-borroka jarri du mahai gainean. CCOO, UGT eta Zapateroaren gobernuak tregoa bat nahi zuten krisiari aurre egiteko. Ugazaberiak bere tokian jarri ditu eta bere aldarrikapenekin (Gizarte Segurantzari egiten dioten kotizazioen murrizketatzarra, iraitzen merkatzea, Enplegua Erregulatzeko Espedientetan administrazio-tutoretzaren desagertzea, soldaten blokeoa, eta abar) begi bistakoa zena baieztatu die: krisia langileek ordaintzea dela ugazaberiaren nahia eta krisi honetatik ez duela berdinketa batekin atera nahi, gol-kopuru handiz baizik, gerora begira lan harremanetan indar-harremana hobetuko dituzten neurri estrukturalekin. Baldintza hauetan, badirudi itun sozial bat ezinezkoa dela, CCOO eta UGT lekuz kanpo geratu direlarik.

Greba Orokorra krisiarekiko erresistentzia eremuan kokatzen da. Egia da neurri potoloa dela eta badirela xamurragoak diren beste erresistentzia-ekimen sindikalak, aurrera eraman ez direnak ezta greba orokor

beragirotzeko. Eta hau, batez ere, ELA eta LABen arteko inki-manka luzearen ondorio da. Bi sindikatu hauek pentsatu dute Greba Orokorreko formula hau ez zela indar metaketa unitarioa baino problematikoagoa; indar metaketa hau, eskualde eta herrialdeetan krisiaren aurkako egitateen metaketaren gainean emango litzateke, jarduera sindikala lantegietatik ateraz eta hiritarren esparruetara eramanez eta gizarte mugimenduek ordezkatzan duten espektorik zabalenera deia zabalduz egitate horiekin bat egin dezaten.

Hanka sartze handia egingo genuke, eta gure kontra jarriko litzateke, greba orokorra borroka sindikalaren mailarik altuenera eramango bagenu. Hau da CCOO eta UGTk egin ohi dutena greba orokorretarako deiak egin ez dutenean. Baina Estatu espainoleko mugimendu sindikalaren historia bera ere bada, zeinak azken hogeita hamar urteotan dozena erdi greba orokor baino ez dituen egin (1985eko ekainaren 20an pentsioen erreformaren aurka, 1988ko abenduaren 14an Gazte Enplegu Planaren aurka, 1992ko maiatzaren 28an desentzako dekretuzarraren aurkako egun erdiko greba orokorra, 1994ko urtarrilaren 27an gazteentzako kontratu zaborraren aurka, 1999ko maiatzaren 21ean 35 orduko lanaldia eta gizarte soldataren alde Hego Euskal Herrian, ekainaren 18 eta 19an -EHAE eta Nafarroan- lan erreformaren aurka. Gure inguruko herriek, Frantzia eta Italia kasu, greba orokorretan ohitura gehiago dute.

#### 4. Greba Orokorraren balioa

Greba orokor honen eraginkortasuna honako terminoetan eman behar da:

- a) Jasaten ari garen krisi ekonomikoa oso latza da, eta latza izaten jarraituko du; soldatapekoak biziki jipoitzen ditu langabeziarekin, soldaten blokeoekin, mugikortasunarekin, eta abarrekin; lan sektore jakin batzuk bizikiago jipoitzen ditu, etorkinak eta gazteak hain zuzen ere; ezartzen ari diren politika publikoak klasistak dira, bankaren aldekoak alegia, eta ez jende arrunta faboratzeko; egoera honek amorrua eta egonezina piztu ditu biztanleriaren sektore zabaletan; hala ere, krisiarekiko erantzuna mugatua da, lantegietan biltzen ari baita edo hainbat sindikatuk edo Herria Abian bezalako plataformek, bakoitzak bere kabuz deituriko manifestaldietan.
- b) Greba orokorrerako deialdia bera krisiarekiko egungo erantzunetik gora jartzen da; egun arte egiten dena ez dela nahikoa agertuz; gizarteari mezua luzatzen zaio, batez ere ugazabei eta gobernatzan gaitzuztenei, esanaz egitate maila altu hau hautatu dela gizarte egonezina ahalik eta zabal kanalizatu nahi dugulako erantzukizunak finkatuz eta aldarrikapen zehatzak definituz.

Aurreko greba orokorretan esan ohi dugu greba ez zela helburua. Hala ere, helburu bihurtzen zen. Oraingo hau greba atipikoa da, lehen aipatu ditugun seiek zituzten helburu zehatzik gabeko delako, denboran jarraituko duen krisi baten erdian ematen baita. Maiatzaren 21eko greba orokorrak borrokarako beste eratan izango du segida eta bere arrakastak krisiaren aurkako erresistentziarako mugimenduaren pilak betetzeko balio izango du, bai esparru sindikalean bai hiritarren artean.

Grebarako falta den denboran berau zehazten joango denez, ez dirudi grebarekin aldarrikapen lorgarrien plataforma bat osatuko denik, nahiz eta greba arrakastatsu suertatu. Baina grebaren alde diren artean xumeak diren ideia batzuk garbi eta argi izan beharko genituzke maiatzaren 21erako deialdia defendatzeko garaian.

Hona hemen greba orokorra apoiatzeko arrazoietako batzuk:

- Erantzukizun ez dugun krisiaren aurka protesta. Erantzukizun garbiak dituen kapitalismoaren krisia da: finantza eliteak eta denon diruekin nahi dutena egitea utzi dizkieten politikoak.
- Krisia ohikoek ordaindu ez dezagun, egiten ari garen bezala langabeziaren gorakadarekin eta bizi baldintzen gaizkiagotzearekin oro har eta lanekoekin batez ere.
- Ugazaberia geldiarazteko lantegietan borrokatu behar dugu, baita ere hauetatik kanpo. Lantegietan bakarrik borrokatuz ez dugu irabaziko. Ahalik eta lantegi gehienak batu eta hiritarren esparrura eramanez behar dugu, eta hauetan erresistentzia posible ez den lantegietako jendea eta arrazoi ez-laboralengatik amorrua sentitzen dutenak batu.
- Agintari politikoek erabiltzen duten era bikoitza salatu: bankari dirua barra-barra ematen diote eta ez dute enplegua bermatzen, beste hainbeste langabezia-sariarekin, etxebizitzaren mantentzearekin eta krisiaz jipoituak direnei ere ez zaie bizimodu duinik bermatzen.
- Krisitik indar handiagorekin ateratzen saiatuko den kapitala gerarazi behar dugu. Ekin behar dugu Gizarte Segurantzari egiten dioten kotizazioen murrizketazarra, iraitzen merkatzea, Enplegua Erregulatzeko Espedientetan baimen administratiboak mantentzea...
- Agintari politikoek amorerik eman ez dezaten ugazaberiaren exijentziekiko.

- Estatu espainoleko gobernuari orekiatu behar diogu inor ez dadila langabezia-saririk gabe geratu eta hipoteka ezin ordaintzeagatik etxebizitzarik gabe inor gera ez dadin. Aldarrikapen hau Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuari ere luzatu behar zaie.
  - Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari exijitu behar zaie zabal dezatela Oinarrizko Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarri eta Gizarte Larrialditarako Laguntzen jasotzaile potentzialen esparrua; krisia dela bide bizitzeko diru-sarrerarik gabe edo etxebizitzarik gabe inor izan ez dadin.
- c) Greba Orokorren aurreko egunetan eta honen ondorengoetan eztabaidak emango dira eta hauetaz baliatu behar gara irtenbide kapitalista kolokan jartzen duen des-hazkundearen inguruko ideiak eztabaidatzeko, ondasun eta lan banaketan oinarritzen diren proposamenen inguruan hitz egiteko, baita ere krisi ekologikoa kontutan harturik produkzio eta kontsumo era desberdinak proposatzen dituzten ideiak.

#### EKINTZA SINDIKAL BATZORDEA